

ANTXIÑAKO FOTOGRAFIXIA



Negua hurrian da

Aurten be zurittuta agertu dira mendixak zemendixan. Udazkena izan arren, negua gaiñian dakogula esan gura dau horrek. San Andresetan, Uribarri auzoko jaixetan, ezta harrigarria edurra ikustia Aloña aldian, eta baita beherago be. Azkenengo astiok, eguraldi-kontuetan, zoro samarrak izan dittugu: **eurixa idolaz sarri**, batzuetan **edurra gaiñetan**, **hegoaize fresko nahiz epela** hurrengo. Eztago asmaiterik askotan zer arropa jantzi. Baiña garai bakoitzari dagokixona hartu bihar dala dixo esaeriak, eta konformau gaittezen, okerragorik eztorren bittartian.

Uribarriko argazki zahar honek be halako zerbait erakusten dosku: **negu-girua**, atzeko mendixak edurrez jantzita ikusten dira-eta. Ba, Larraña eta Olabarrieta aldeko malda horreik hola baldin baegozen, **Uribarritik gora** be berihala topau ahal izango zan **edur zurixa zapalketako aukeria**. Orduan, baiña, banaka batzuk kenduta, etzan ibiliko paraje horreittan gaur adiña eskiazaille.

Fotografixiak urtetxo batzuk eukiko dittu. Arantzazurako **kamiñua estuagua** da; **eskolia zanak**, **San Andres ermittiak eta Paterretzek**, zutik jarraitu arren, gaur egun beste itxura bat dakoi; ezkutau xakunak ermita aurreko **santutxua** eta orain hurrenguan aittaketan geben **itturriko santamosua** dira, errepidia zabaldu zanian bota ziralako. Ezkerrian **Goittikua** baserrixaren albuia agiri da, eta behealdian **Tabernakua**.

Laister kaleratuko da **Mikel Alberdik**, **Artixa taldiarekin** eta **auzotarrekin batera**, Uribarriri buruz moldau dauen **liburua**. Bertan irakurri ahal izango dittuzue Oñatiko auzo zahar honetako historixa eta kontu jakingarri asko, irudi eta argazki ugariarekin aberastuta.

Jerardo Elortza 



smk
san miguel kooperatiba
943 781 217
kale barria 8 - 20560 oñati
www.sanmiguel.coop



EGUR-LAN
AROSZTEGIA
LIMABAR S.A.L.
BEREZAIO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPUZKOA)
TEL FAXA: 943 78 14 59 limabarsal@gmail.com
www.egur-lan.es